

GIL 58 Badaiaiko dolina-zelaia



Badaia mendilerroko dolina-lerrokaduraren airetiko ikuspegia (argazkia: Iker Mendiguren).

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 50' 49,61" N
Long.: 2° 51' 32,83" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 511.511,31 m
Y: 4.743.847,06 m



Nola iritsi

Badaia mendilerroa oinez igo, edozein bidetatik, nahiz Kuartango aldetik, nahiz Iruña Okatik.

Deskribapena

Badaia mendilerroa Gasteiztik mendebaldera dago, eta Subillako kareharrien pakete lodi batez eratua da (Goi Kretazeoa). Paketeak S-SW-ko batez besteko orientazioa du, eta 40 bat graduko okerdura.

Mendilerroaren goialdean, kareharri-paketeak karstifikazio handia jasan du, eta, hala, hiribururako ur-gordailu handi bat sortu da. Gainazalean, ura dolina-sistema ikusgarri batean zehar sartzen da; dolinak N30° E norabide nagusiko diaklasen aldera lerrokatuta daude. Lerrokaduran, garapen handiko 25 dolina baino gehiago egon daitezke bata bestearen atzean.

Behatzeko punturik onena

In situ.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 29, GIL 54.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 56, GIL 57, GIL 60, GIL 62.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa			●	
	Tektoniko/Estrukturala			●	
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- *Tesis doctoral sobre el acuífero de las calizas de Subijana.* Iker Mendiguren. EHU.